

**Dekretu zk.:** 2025 / 755      **Data:** 2025/07/15  
**Eskatzailea:** LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL  
**Gaia:** LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL-RI 2025EKO DIRULAGUNTZA  
NOMINATIBOA EMATEA (Espediente zk.: 2025/01648).

Espediente zenbakia: 2025-01648

### **XEDEA:**

LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL-RI 2025EKO DIRULAGUNTZA  
NOMINATIBOA EMATEKO PROPOSAMENA, GERNIKA-LUMOKO UDALAREKIN  
ELKARLANEAN HITZA EUSKARAZKO FUNTSEZKO EGUNKARIAREN PROIEKTUA  
GARATZEKO 2025EAN ZEHAR (Espediente zk.: 2025/01648).

### **AURREKARIAK**

Indarrean dagoen 2025erako udal aurrekontuak (2025eko aurrekontu luzatua) 21.000 euroko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten du Lea-Artibaialdeko hedabideak SL (HITZA)-ren alde.

Ama Lur Bedilauneta andreak (NAN: 44340080-J), aipatu dirulaguntza kopurua eskatu du Lea-Artibaialdeko hedabideak SL (HITZA)-ren izenean eta hura ordezkatzuz 2025eko ekainaren 27an (erregistro telematikoaren zk.: E202506468), Gernika-Lumoko Udalarekin elkarlanean HITZA euskarazko funtsezko egunkariaren proiektua garatzeko 2025ean zehar.

Euskara dinamizatzailerak, euskara zinegotziaren oniritziarekin, 2025eko uztailaren 10ean idatzi du justifikazio-txostena aipatu dirulaguntza nominatiboa Lea-Artibaialdeko hedabideak SL (HITZA)-ri emateko.

Udal kontuhartzaitzari tramitatu zaio kreditu nahikoa eta egokia dagoela informatzeko.

### **OINARRI JURIDIKOAK**

I.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan ezartzen denez, zuzenean eman ahal izango dira, besteak beste, aurrekontu orokorretan nominatibo izaerarekin aurreikusitako dirulaguntzak, dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian aurreikusitako baldintzetan. Era berean, lege beraren 28. artikulua ezartzen du elkarlanerako hitzarmenak ohiko tresna izango direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko.

II.-Erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu du, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako kausaren bat dela-eta dirulaguntzen onuradun ez izateari buruzkoa, bai eta jarduera bera finantzatzeko eskatutako eta/edo jasotako beste laguntza batzuei buruzkoa ere.

Era berean, adierazi du egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta, nolanahi ere, baimena eman dio Gernika-Lumoko Udalari inguruabar horiek ziurtatzeko bere kabuz.





III.- Lea-Artibaialdeko Hedabideak SL legez eratuta dagoela (IFZ zk.: B-95284857 / helbidea: Arretxinaga etorbidea, 1-behea / 48270 Markina-Xemein - Bizkaia), Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro ofizialean aintzat hartuta.

IV.- DLOren 28.1 artikulua araber, hitzarmenak izango dira aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

V.- Dirulaguntzei buruzko indarrean dagoen udal-ordenantzaren 35. artikulua udal dirulaguntza nominatiboak emateko prozedura arautzen du.

### **Beraz, Alkatetzak EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** Lea-Artibaialdeko Hedabideak SL (IFZ zk.: B-95284857) 21.000 euroko dirulaguntza nominatiboa ematea, Gernika-Lumoko udalarekin elkarlanean HITZA euskarazko funtsezko egunkariaren proiektua garatzeko.

**Bigarrena.-** Erakunde horrekin sinatu beharreko hitzarmena berrestea, espedienteari erantsitako proposamenaren arabera.

**Hirugarrena.-** Laguntza hau bateragarria izango da jardura bera finantzatzeko beste edozein laguntza edo laguntzarekin, baina inola ere ez da egongo gain-finantzaketarik.

**Laugarrena.-** Dirulaguntza hori Gernika-Lumoko Udalaren 2025eko gastuen aurrekontuko 5-3354-47100 partida ekonomikoaren kargura ordainduko da.

Ordainketa entrega bakarrean egingo da, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen hau ematen denetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Dirulaguntzaren xede den egitasmoa garatzeko epea 2025. urtea dela kontuan hartuta, 2025eko ekitaldia amaitu eta hurrengo **bi hilabeteen** barruan diruz lagundutako erakunde onuradunak justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko du, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera. Kontu horretan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra (887/2006 Errege Dekretua) garatzen duen Erregelamenduaren 75. artikuluan aipatzen den informazioa jasoko da.

**Seigarrena.-** Era berean, honen berri emango zaie Udal Kontuhartzaitzari eta Diruzaintzari, eta legez ezarritako publizitatea emango da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, legeak xedatu moduan.

ALKATEA

-Jose M<sup>a</sup> Gorroño Etxebarrieta-

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DATAN



